

## ERANSKINA

### 1. Xedea eta jarduketa esparrua.

Oinarri hauek araututako dirulaguntzen xedea da nekazaritzako lanbide elkarteei honako hauekin lotutako jarduketak finantzatzea: kontratazioen sustapena; sentsibilizazio eta zabalkunde ekintzak, eta, oro har, jendearentzako informazio ekintzak nekazaritza sektorean, kalitatezko enpleguarekin eta deklaratu gabeko enplegua erregularizatzearekin lotuak.

Jarduketa eremua Nafarroako Foru Komunitatea da.

### 2. Jarduketa diruz lagungarriak eta dirulaguntzaren zenbatekoa.

Jarduketa diruz lagungarriak Nafarroan egin beharko dira, eta honako hauek izanen dira:

- a) Nekazaritza sektoreko langileekin egiten diren aldi baterako kontratazioak, baldin entitate onuradunak bitartekari izan badira.

Hauxe izanen da dirulaguntza: egindako kontratu bakoitzeko 35 euro. Kontratua egiten denean pertsona kontratatua errenta bermatua jasotzen ari bada, zenbatekoa 50 euro izanen da.

Jarduketa honengatik gehienez 50.000 euroko dirulaguntza izanen da denera, urteko deialdiaren kargura.

- b) Biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak, sentsibilizazio eta zabalkunde ekintzak eta, oro har, jendearentzako informazio ekintzak, nekazaritza sektoreko kalitatezko enpleguarekin lotuak, eta lana aktibatzeke hainbat neurri.

Baldin biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak, hitzaldiak eta abar badira, eta jendea bertaratu behar bada, gutxienez ere 10 lagunentzat egin beharko dira.

Jarduketa hauengatik gehienez 10.000 euroko dirulaguntza izanen da denera, urteko deialdiaren kargura.

Aurreko 2.a) oinarrian jasotako jarduketetarako dirulaguntza ordaintzearen ondorioetarako, pertsona bakoitza bitan konta daiteke gehienez jarduketaren hilabete naturaleko.

### 3. Dirulaguntzaren onuradun diren entitateak eta betebeharrak.

Dirulaguntzen onuradun izateko, nekazaritzaren lanbide elkartek 2. oinarrian zehaztutako jarduketak egin behar dituzte eta kasuan kasuko proiektua gauzatzeko behar adinako gaitasun teknikoa eta egitura eduki behar dute.

Dirulaguntzen onuradun diren entitateek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Nekazaritzako lanbide elkarte gisa legez eratuak izatea.
- b) Lantoki bat Nafarroan izatea.

c) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritako debeku egoeretako batean ere.

#### **4. Aurrekontu-zuzkidura.**

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan nekazaritza sektoreko kontratazioak sustatzeko programa kudeatzeko onesten den partidaren kargura finantzatzeko dira deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak, urtero, aurrekontuetan dagoen gehieneko diru-muga agortu arte.

#### **5. Egin beharreko jarduketek bete beharreko baldintzak.**

Aurreko 2. oinarrian aipatutako jarduketa diruz lagungarriek baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Kontratutako pertsoneri alta eman beharko zaie Gizarte Segurantzari.
- b) Aurreko 2.b) oinarrian jaso diren eta dirulaguntza eskaeraren xede diren jarduketek ordaindurik egon behar dute eskaera aurkezteko unean.

Entitate eskatzaileek Nafarroan gauzatu behar dituzte jarduketa guztiak.

Baldintza horietatik baten bat betetzen ez bada, dirulaguntza eskaera ukatu egingen da.

#### **6. Gastu diruz lagungarriak**

Aurreko 2.b) oinarrian azaldutako dirulaguntza horrekin entitateak egindako gastuak ordainduko dira, zehazki:

- a) Pertsonal-gastuak:  
proiektuaren koordinatzaileak, teknikariak eta administrazio laguntza ematekoak.  
Hiru kasu horietan, dedikazioa lanaldi osokoa ez bada, dagokion zati proportzionala lagunduko da diruz.
- b) Ekintzak egiteari lotutako gastu zuzenak; horien artean, azpikontratazioak diruz lagungarriak izan daitezke.
- c) Zeharkako gastu orokorrak. Gastuak onartuak izateko, aipatu beharko da, eskabidea aurkezteko unean, egozteko irizpidea, eta, betiere, jarduera benetan egiten den epearen barruan eginak izan beharko dute. Onartuko den gehieneko zenbatekoa ez da izanen proiektuari egotzitako pertsonal-gastuen % 10 baino handiagoa.

Erakunde onuradunek diruz lagundutako jardueraren % 100 arte azpikontrata dezakete hirugarrenekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 26. artikuluan xedatuaren arabera.

#### **7. Eskabideen aurkezpena eta epea.**

Hilabete naturalean guztira egindako jarduketengatik eskatuko da dirulaguntza.

- a) Dirulaguntzaren xede diren jarduketak egin eta hurrengo hilabete naturala izanen da eskabideak aurkezteko epea, eta hilabete horretako azken egunean bukatuko da epea, baldin dena delako gasturako baimena argitaratu bada. Bestela, epea hilabetekoa izanen da baimen hori argitaratzen denetik hasita.

2018ko urtarrilaren 1etik ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu arte egiten diren jarduketetarako, eskabideak 15 eguneko epean aurkeztu beharko dira, argitaratze egunaren biharamunetik hasita.

Aurreko urteko urritik urte horretako iraila arte egindako jarduketak izanen dira diruz lagungarriak, salbu 2018. urterako, non dirulaguntzak emanen baitira urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitarte egindako jarduketetarako.

b) Eskabideak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bitartez aurkeztuko dira bakar-bakarrik.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, entitateetako batek eskabidea aurrez aurre aurkezten badu, eskatuko zaio zuzenketa egin dezala, baliabide elektronikoen bidez aurkeztuz.

c) Eskabideak adierazitako epetik kanpo aurkeztuz gero, ez dira onartuko.

## **8. Aurkeztu beharreko agiriak.**

1. Deialdi honetan parte hartu nahi duten entitateek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Dirulaguntzarako eskabidea, behar bezala betea, eredu ofizialaren arabera. Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuan edo Nafarroako Gobernuaren webgune ofizialean ([www.nafarroa.eus](http://www.nafarroa.eus)) eskuratzen ahal da.

b) 3. oinarrian eskatutako baldintzak betetzen direla dioen erantzukizunpeko adierazpena.

c) Entitatea eratzeko eskritura edo akta, eta estatutuak, eta behar adinako ahalordetzea entitate eskatzailearen ordezkariarentzat, non ez den ordezkaritza hori estatutuen ondoriozko.

Ez da beharrezkoa izanen dokumentazio hori aurkeztea baldin Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak badauka. Halakoetan, entitate eskatzaileak identifikatu beharko du zer espedientetan dagoen dokumentazio hori.

d) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera, Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatzen zaion lehenbiziko aldia baldin bada.

e) Erantzukizunpeko adierazpena edo ziurtagiria, adierazteko aurreikusitako dirulaguntzen gutziraiko zenbatekoa ez dela handiago jardueraren kostua baino.

Gainera, 2.a) oinarrian azaldutako ekintzetarako:

f) Kontratutako pertsonen zerrenda alfabetikoa, kontratuaren hasierako eguna agertzen duena eta errenta babestuaren hartzaileak diren adierazten duena.

g) Dirulaguntza eskaeraren xede den kontratu bakoitzaren komunikazioa.

Eta, gainera, 2.b) oinarrian azaldutako ekintzetarako:

h) Deialdiko 2.b) oinarrian jasotako jarduketaren deskripzio zehatza, gehi dagozkien behin betiko fakturak eta ordainketen frogagiriak. Deskripzioak honako hauek azalduko ditu, gutxienez: ekitaldiaren edukia, eguna, ordua, lekua, hizlariak, xede den publikoa, iraupena eta kasu bakoitzean aipagarritzat jotzen den informazio guztia.

i) Langile gastuen justifikazioari dagokionez, diruz lagundutako jarduerari lotutako langileen zerrenda izenduna, adierazita identifikazio datuak, lanaldia eta egozpen

portzentajea. Orobat, aurkeztuko dira nominak, Gizarte Segurantzako kotizazio buletinak eta PFEZaren atxikipenei buruz Ogasunean egindako aitortpenak.

j) Baldin biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak, hitzaldiak eta antzekoak egiten badira, bertaratu izanaren frogagiriak, bertaratuak betetako sinadura orrien bidez, eredu ofizialaren arabekoak. Eredu hori Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eskura daiteke, edo Nafarroako Gobernuaren webgune ofizialean ([www.nafarroa.eus](http://www.nafarroa.eus)).

2. Eskaerak betetzen ez baditu adierazi diren betebeharrak, dagokion instrukzio unitateak entitate eskatzaileari eskatuko dio zuzendu dezala gehienez ere 10 egun baliouduneko epean, eta adieraziko dio zuzendu ezean ondorioztatuko dela eskaeran atzera egin duela. Kasu horretan espedientea artxibatzeke ebazpena eman eta jakinarazi egingen da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 19. artikuluko 3. apartatuan xedatu bezala.

3. Dirulaguntza eskatzeak berekin dakar deialdi hau arautzen duten oinarriak onartzea.

4. Eskabidea aurkezteak berekin dakar entitate eskatzaileak Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuari baimena ematea erakunde eskudunei informazioa eskatzeko, egiazta dezan aipatu entitateak betetzen dituela zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta ebazpena emateko behar den beste edozein. Entitate eskatzaileak berriaz uko egiten badiu baimen hori emateari, kasuan kasuko agiriak erantsi beharko ditu.

## **9. Instrukzioa eta tramitazioa.**

a) Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Enplegua Sustatzeko eta Enpresentzako Zerbitzuetarako Zerbitzua izanen da prozeduraren instrukzioaz eta tramitazioaz arduratuko den organo eskuduna.

b) Instrukzio organoak, behar diren egiaztapenak egin ondoren eta aurrekontuan dagoen diru erabilgarriaren arabera, txostena prestatu eta dagokion ebazpen proposamena egingen du, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileari igortzeko.

c) Eskaeren instrukzioa aurkezten diren hurrenkera berari jarraikiz egingen da.

## **10. Laguntzak emateko prozedura.**

Deialdi honetan ezarritako dirulaguntzak emateko, banakako ebaluazioaren araubidea erabiliko da. Prozedura hori Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen aurreikuspenekin eta oinarri arautzaile hauetan ezarritakoarekin bat etorriko da.

## **11. Deialdiaren ebazpena.**

a) Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak, instrukzio organoak egindako proposamena jasorik, ebatziko du dirulaguntza eman edo ukatzen den.

Ebazpena, arrazoituta, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere bi hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da. Epe hori ebazpen espresik jakinarazi gabe bukatzen bada, aurkeztutako eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da, deusetan galarazi gabe organo eskudunak ebazpena emateko duen betebeharra.

b) Eskaeraren gaineko ustezko edo berriazko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkezten ahalko da Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Ebazpena berariazkoa ez bada, noiznahi aurkezten ahalko da errekurtoa, ebazteko gehieneko epea bukatu eta biharamunetik hasita.

## **12. Dirulaguntza ordaintzea.**

a) Jarduera gauzatu ondoren, erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera justifikatuta ordainduko da dirulaguntza.

Bidezko egiaztapena egin ondoren, ordaintzeko, hala egokituz gero, eta espedientea bukatzeko ebazpena emanen da.

b) Aurreko puntuari ezarritako epean justifikaziorik izan ezean, emandako dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

## **13. Onuradunen betebeharrak.**

Oro har, onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 9. artikuluan ezarritako betebeharrak izanen dituzte, eta, bereziki, honako hauek:

a) Dirulaguntza edo laguntza emateko oinarri izan diren jarduketak egitea.

b) Jarduketa egin dela frogatzea, eta dirulaguntza ematean eta horren gaineko ebazpenean ezartzen diren betekizun eta baldintzak betetzen direla ere bai.

c) Laguntza emateko ebazpena ematen den unean, zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, eta, hala badagokio, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin edo haren erakunde autonomoekin ordaindu beharreko zorrik ez izatea. Betebehar hori egunean duela egiaztatzeko, entitate eskatzaileari jakinarazten zaio eskubidea aurkeztearekin batera baimena ematen diola Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuari behar diren datuak kontsulta ditzan.

d) Dirulaguntza ematen duen organoak eta indarra duen antolamendu juridikoaren arabera eskudun diren bestelakoek egin beharreko egiaztapen lanak onartzea, eta egiten diren kontroletan laguntzea.

e) Nafarroako Gobernuak eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak egiten dituen kontrol lanak onartzea.

f) Diruz laguntzen diren ekintzen kudeaketarekin eta gastuekin zerikusia duten frogagiriak auditoria eta kontrol organoen eskura edukitzea lau urtez, aurkeztu eta gero.

g) Deialdi honetan eta aplikatzekoa den legerian ezarritako kasuetan, harturiko funtsak itzultzea.

h) Jarduketak sustatu eta zabaltzeko adierazpen guztietan Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diruz lagundu dituela agerraraztea.

i) Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eman zaion dirulaguntzaren gainean eskatzen dion informazio guztia ematea.

j) 5/2018 Foru Legearen 3.c) eta 12. artikuluetan eta indarrean dagoen beste edozein arautan dirulaguntzen onuradun diren entitate pribatuei ezarritako gardentasun betebeharrak betetzea (5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa).

## **14. Dirulaguntzen jarraipena eta kontrola.**

Entitate onuradunek honako egiaztatze lan hauek onartu beharko dituzte: Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileak egin beharrekoak, bidezko diren finantza kontrolekoak, hala badagokio, Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako Departamentuko kontu-hartzailearenak, Kontuen Ganberaren legedian aurreikusitakoak eta legez bidezko diren gainerakoak.

## **15. Dirulaguntzaren bateragarritasuna.**

Nekazaritza sektoreko kontratazioa sustatzeko dirulaguntzak bateragarriak dira helburu bererako ematen ahal diren bestelako laguntza edo dirulaguntzekin.

Nolanahi ere, ematen diren dirulaguntzen zenbatekoa behin ere ez da izanen, bakarrik edo beste administrazio publiko batzuekin edo Espainiako edo atzerriko entitate publiko edo pribatuen dirulaguntza edo laguntzekin batera, entitate onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

## **16. De minimis laguntza.**

Deialdi honetako dirulaguntzak de minimis laguntzak dira, Europako Batzordeak abenduaren 18an emandako 1407/2013 Erregelamenduan xedatutakoaren arabera. Erregelamendu hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeko moduari buruzkoa da.

Erregelamendu horrekin bat, enpresa bakar bati hiru zergaldiko edozein alditan emandako de minimis laguntza guztien batura ezin da 200.000 eurotik gorakoa izan. Enpresa bakarraren definizioa aipatu erregelamenduen 2.2 artikuluan ezarrita dago.

b) Horretarako, enpresek kasuan kasuko zerga-ekitaldian eta aurreko bi zerga-ekitaldian hartutako bestelako de minimis laguntzak aitortuko dituzte.

## **17. Jakinarazpena eta publizitatea.**

Ebazpenak administrazio prozedura arautzen duen legerian aurreikusitako moduan jakinaraziko zaizkie entitate interesdunei, eta Nafarroako Atarian argitaratuko dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 15.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Laguntza onartzearekin batera, entitate onuradunak berariaz onartzen du bere datuak argitaratzea aipatutako web-orrietan.

Datu horiek, orobat, Estatuko Administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiak argitaratuko ditu bere web-orrian, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikuluan xedatutakoarekin bat.

## **18. Ez-betetzeak eta dirulaguntzaren itzulketa.**

Hartutako zenbatekoa itzuli egin beharko da, osorik edo partez, baldin programa gauzatzen ez bada, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 35. artikuluan aipatzen diren zergatikoak gertatzen badira edo deialdi honetan berariaz aipatzen diren betebeharrak betetzen ez badira. Legez ezarritako kasuetan, gainera, bidezkoa izanen da berandutze-interesak ordaintzeko eskatzea, dirulaguntza ordaindu zenetik itzuli beharraren gaineko ebazpena ematen den arte sortutakoak.

Emandako dirulaguntza osoa itzuli beharko da, halaber, baldin Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen onuradunen gardentasun betebeharrak arautzen dituen irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuak ezartzen dituen betebeharrak betetzen ez badira.

Dirulaguntza hartzen duten entitateek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 42. artikuluan eta hurrengoetan dirulaguntzei dagokienez ezarrita dauden erantzukizunak izanen dituzte eta hango zehapen araubidearen mende egonen dira.

### **19. Araudi osagarria.**

Oinarri arautzaile hauetan xedaturik ez dagoen guztian, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen xedapenak eta aplikagarri den gainerako araudi administratiboa aplikatuko dira.

### **20. Datuen babesa.**

Dirulaguntza hauek gauzatzearen ondorioz lortzen diren datu pertsonalen tratamendua honako hauen menpe egonen da: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena; eta 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoa, hartan xedatuaren aurkakoa ez den orotan; eta une oro arlo honetan indarrean dagoen araudia.

Dirulaguntzen xede diren jarduketetan, haietan parte hartzen dutenen edo hartzaile direnen baimena lortu beharko dute entitate onuradunek haien datu pertsonalak tratatzeko, eta aipatutako erregelamenduaren (EB) 13. artikuluan aurreikusitako informazioa eman beharko diete.